

## EUSKARA IKASLEENDAKO DIRULAGUNTZAK: OINARRIAK

**1. Oinarrien xedea eta objektua.** Oinarri hauen xedea da euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren Sakanako herritarrei dirulaguntzak emateko modua arautzea.

**2. Dirulaguntzaren gaiak eta kontzeptuak.** Diruz lagunduko dira 2020ko uztailaren 1etik 2021eko ekainaren 30era arte egindako ikastaroen matrikula. Kilometrajea ez da diruz lagunduko.

Diruz lagunduko dira ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informatika bidezkoak. Ez dira diruz lagunduko ikastaro teknikoak edo C1 mailatik gorakoak. Ez dira diruz lagunduko Sakanako Mankomunitateko langileek egindako ikastaroak.

**3. Dirulaguntzaren zenbatekoa.** Objektu honetarako, guztira, 25.000,00 euro erabiliko dira, Euskara Zerbitzuko 2021eko ekitaldiko aurrekontuetako 4 3350 4820003 (Euskara ikasleendako dirulaguntzak) partidaren jasotako kredituaren kontura. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Dirulaguntzek deialdiari esleitu zaion diru-kopurua gainditzen badute, aurrekontuetan gehienez ere aurreikusi den diru-esleipena behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da, betiere deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean. Dena den, dirulaguntzen onuradunek ezin izanen dute 500,00 euro baino gehiagoko laguntzarik jaso deialdi bakoitzeko.

**4. Deialdiaren publizitatea.** Deialdi hau aditzera emateko, prentsa-oharra helaraziko zaie hedabideei. Horrez gain, deialdiaren testu osoa Sakanako Mankomunitatearen webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) jarriko da, eta laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**5. Eskabideak aurkezteko epea.** Eskabideak aurkezteko epea 2021eko ekainaren 1tik uztailaren 31ra bitartekoa izango da. Epe hori luzaezina izanen da.

**6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.** Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da Sakanako Mankomunitateko erregistroan:

- a) Eskabide ofiziala beteta.
- b) Eskatzailearen nortasun agiriaren kopia.
- c) Erroldatze ziurtagiria.

- d) Euskaltegiak eginiko asistentziaren edo aprobetxamenduaren ziurtagiria.
- e) Matrikularen ordainagiria.
- f) Aitorpena, objektu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebazteke edo ebatzita dauden; azken kasu horretan, kontzesioari dagokion ebazpenaren kopia erantsiko da.

Hori dena zuzenean egin ahal izango da edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste prozeduraren bat erabiliz. Hona Mankomunitatearen helbidea:

**Sakanako Mankomunitatea**  
**Uriz 32**  
**31830 Lakuntza**  
**948 464840**  
**euskara1@sakana-mank.eus**

**7. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak.** Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatzen ahal dituzte dirulaguntzak. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira baldintza hauek:

- a) Diruz lagundutako ikastaroaren % 80an parte hartu duela frogatzea.
- b) Sakanan erroldatuta egotea. Sakanako udal eta mankomunitateetan lanean ari diren administrazioko langileek eta eskualdeko toki-entitateetako hautetsiek dirulaguntza eskatu ahal izanzen dute nahiz eta eskualdean erroldatuta egon ez.
- c) Sakanako Mankomunitatearekiko zerga-betebeharrak ordainduta izatea (mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori eta behar den eginbidearen bitartez jasoko da).

**8. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.** Aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Sakanako Mankomunitateko lehendakariak horretarako ebazpena egingo du.

**9. Ebazpena.** Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena Sakanako Mankomunitateko lehendakariak emango du Euskara Batzordearen irizpena aintzat hartuz, hamabost eguneko epean.

Ebazpen hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Esleipen-ebazpenean zehaztu behar da nori eman zaion dirulaguntza, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurtsio bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beste edozein errekurtsio bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Ebazpena eman eta ordaintzeko epea lau hilabetekoa da, gehienez ere. Dirulaguntza eman eta ordainketa agintzeko ebazpena emateko epea 2021eko

abenduaren 31n amaituko da. Behin epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaro eta gero, eskaera ezetsizat jotzen ahalko da.

**10. Dirulaguntzaren ordainketa.** Dirulaguntzak ordainketa bakarrean pagatuko dira. Banku-transferentzia eginen da eskatzaileek adierazitako kontu korrontearen zenbakian.

Onuradunen bati esleitutako laguntzaren zenbatekoa murrizten bada dokumentazio osoa ez aurkezteagatik, ez justifikatzeagatik edo epeak edo deialdiko oinarrietakoren bat ez betetzeagatik, soberakina gainerako onuradunen artean proportzionalki banatzen ahalko da.

**11. Bateragarritasuna.** Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk objektu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada.

**12. Dirulaguntzen itzulketa.** Dirulaguntza zati bat edo osoa itzuli beharko da, ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Objektu bera duten eta bateraezinak diren dirulaguntzak aldi berean jasotzea.
- d) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

**13. Arau-hauste eta zehapenak.** Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Arautegi Orokorrak aginduko dute.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen IV. tituluan xedatutakoak aginduko du. Zehapen-prozedura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. tituluan ezarritakoa izanen da.

**14. Datuen babesa.** Eskatzaileen datuak Datuak Babesteari buruzko 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera tratatuko dira. Eskatzaileek ematen dituzten datuak Sakanako Mankomunitateak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategietan sartuko dira. Betiere helburua izango da dirulaguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duen beste edozein administrazio-espeditente kudeatzea. Fitxategi horren arduraduna Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua izango da, eta sartu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak Sakanako Mankomunitateak duen jendearendako harrera bulegoan (Lakuntzan, Uriz 32) egikaritu ahal izango dira.

**15. Ordezko arauak.** Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

**16. Errekurtsoak.** Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

## EUSKARA IKASLEENDAKO DIRULAGUNTZAK: ESKABIDEA

### Eskatzailearen datuak:

✓ Izen-abizenak:

✓ NAN:

✓ Helbidea:

✓ Posta kodea:

✓ Herria:

✓ Telefonoa:

✓ E-posta:

✓ Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

✓ Matrikula gastuak:  €

### Data eta sinadura

Bildutako datu pertsonalak dirulaguntzen fitxategian gordeko dira. Bere helburua da Euskara Zerbitzuak ematen dituen dirulaguntzen eskaerak biltzea, erregistratzea eta kudeatzea. Dirulaguntzei buruzko Legea da datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa. Sakanako Mankomunitatea da datu pertsonalen hartzailea. Datu pertsonalak dirulaguntzei eta administrazio-prozedurari buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz gordeko dira. Interesdunak berriazko baimena ematen dio Sakanako Mankomunitateari datuak tratatzeko. Aditzera ematen dizugu eskubidea duzula edozein mementotan zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua murrizteko edota haren kontra egiteko. Horretarako, jakinarazpen idatzia bidali beharko duzu Sakanako Mankomunitatera, eta zure nortasuna egiaztatzea beharko duzu zuzenbideak onartutako edozein bide erabilita. Halaber, aditzera ematen dizugu egokitzat jotz gero erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzula kontrol-agintaritzaren baten, hain zuzen ere, Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.

## EUSKARA IKASLEENDAKO DIRULAGUNTZAK: ZINPEKO AITORPENA

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- Laguntza eskabide honetaz landa ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.
- Dirulaguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskabiderik eginez gero, Sakanako Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)